

CELEBRAR EL DOMUND EN EL JUBILEO LA MISERICORDIA

El Domingo es el día del Señor y la Iglesia, extendida por toda la tierra, celebra este día la victoria de Jesucristo sobre la muerte, la victoria de la misericordia de Dios sobre nuestro pecado.

El Domingo Mundial de las Misiones (Domund) podemos “medir” esa misericordia de Dios que la Iglesia vive y anuncia. Para ello, necesitamos abrir los brazos, y el corazón a la medida del “corazón palpitante del Evangelio” (cf. *Misericordiae vultus*, 12) y “abarcando lo ancho, lo largo, lo alto, y lo profundo, comprendiendo al amor de Cristo, que trasciende todo conocimiento” (cf. Ef 3, 18). Celebrar el Domund es tomar conciencia de que la medida del amor de Cristo, que es la misericordia de Dios, nos trasciende también geográficamente y alcanza a todos los pueblos del mundo, llega a cada persona que habita en ellos. La condición misionera de la Iglesia refleja esta trascendencia de la misericordia de Dios: el amor de Dios no se agota en nuestro barrio, sino que llega a todos los barrios del mundo, “en un diálogo respetuoso con todas las culturas y convicciones religiosas” (Francisco, Mensaje Domund 2016).

Sólo al ritmo del corazón del Evangelio podemos vivir y anunciar con alegría la misericordia de Dios, “en el cuidado de la vida, poniendo más interés en las personas que en las estructuras y empleando todos los recursos humanos y espirituales para favorecer la armonía, las relaciones, la paz, la solidaridad, el diálogo, la colaboración y la fraternidad” (Francisco, Mensaje Domund 2016).

La fraternidad nace de la misericordia de Dios. Quien ha experimentado en verdad el amor de Dios, ya no se encierra en sí mismo, no se olvida de quien lo ha salvado y no ahoga al prójimo (cf. Mt 21,28). Al contrario, quien conoce a Cristo, vive para los demás y con los demás, haciendo lo mismo que Dios hace con él (Lc 15, 36,37). Al practicar la misericordia, anunciamos el Evangelio que vivimos. Así, anunciar el Evangelio es practicar las obras de misericordia: quien visita a los enfermos, quien da de comer al hambriento y de beber al sediento, quien da posada al peregrino, y viste al desnudo, quien visita a los presos y entierra a los difuntos es la Iglesia en misión. Y lo mismo cabe decir de las obras de misericordia espirituales.

Ser cristiano es salir de sí mismo para darse a los demás poniéndose en su lugar y quienes con mayor radicalidad viven esta salida de uno mismo, de su propia

casa, de su propia cultura, de cualquier tipo de seguridad, son los misioneros. En el Domund rezamos a Dios por ellos. Le damos gracias por la generosidad que alienta su entrega y le pedimos que los cuide, para que ellos puedan cuidar, en su nombre, a los más pobres.

También queremos pedir a Dios que quienes entre nosotros sientan su llamada a ser misioneros, no acallen su voz con las necesidades locales, que todos conocemos. Estas necesidades son acuciantes en cada una de nuestras diócesis, pero la Iglesia es católica y sólo en la medida en que nos abramos al mundo entero podremos trascender en el conocimiento de la anchura y la profundidad del amor de Dios para cada uno, que es un amor para todos. Así nos lo pide el Papa: “No permitamos que nuestras preocupaciones particulares encojan nuestro corazón, sino que lo ensanchemos para que abarque a toda la humanidad” (Francisco, Mensaje Domund 2016).

Escribo estas líneas al final de la Jornada Mundial de la Juventud 2016, el día de San Ignacio de Loyola. En la Vigilia celebrada en el *Campus Misericordiae* de Cracovia, el Papa Francisco nos decía: “Existen situaciones que nos pueden resultar lejanas hasta que, de alguna manera, las tocamos. Hay realidades que no comprendemos porque sólo las vemos a través de una pantalla (del celular o de la computadora). Pero cuando tomamos contacto con la vida, con esas vidas concretas no ya mediatizadas por las pantallas, entonces nos pasa algo importante, sentimos la invitación a involucrarnos”. Hagámoslo, involucrémonos, como bautizados, como comunidades parroquiales, como comunidades de vida consagrada, como familias, como laicos, como sacerdotes, oremos y trabajemos con los misioneros y, si Dios quiere, como misioneros. Así celebraremos el Domingo, el Domund, con los brazos y el corazón abiertos al mundo entero, poniendo el amor “más en las obras que en las palabras” y dando al otro lo que tengamos (S. Ignacio de Loyola). Dándonos como Dios se nos ha dado, siendo misericordiosos como lo es Él, que nos ha creado a todos a su imagen.

† José Ignacio Munilla Aguirre
Obispo de San Sebastián

ERRUKIAREN JUBILEUAN DOMUND OSPATZEA

Igandea Jaunaren eguna da eta mundu zabaleko Elizak Jesu Kristok heriotza garaitu izana ospatzen du egun honetan, Jainkoaren errukiak gure bekatua garaitu izana.

Munduko Misioen Igandean (Domund) Elizak bizitzen eta iragartzen duen Jainkoaren erruki hori “neurtu” genezake. Horretarako beharrezkoa dugu besoak eta bihotza “Ebanjelioko bihotz biziaren” (ik. Misericordiae vultus, 12) neurrira zabaltzea eta “ezagupide oro gainditzen duen Kristoren maitasuna ulertuz, zabalera, luzera, altuera eta sakonera berezia hartzea” (ik. Ef 3, 18). Domund ospatzea Kristoren maitasunan neurriak (Jainkoaren errukiak, alegia) geografikoki ere gainditu egiten gaituela konturatzea da, munduko herri guztietara eta bertan bizi den pertsona bakoitzarengana iristen delarik. Elizaren izaera misiolariak adierazten du Jainkoaren errukiaren gainditze hori: Jainkoaren maitasuna ez da gure auzoan bukatzen, baizik eta munduko auzo guztietara iristen da “kultura eta erlijio guztiekiko begirunezko elkarrizketan” (Frantzisko, 2016ko Domund egunerako mezua).

Ebanjelioaren bihotzaren neurrira bakarrik bizi dezakegu eta alaitasunez iragarri Jainkoaren errukia, “biziaren zaintzan, pertsonengan egituretan baina interes gehiago jarritz eta giza baliabideak eta baliabide espiritualak erabiliz harmonia, harremanak, bakea, solidaritatea, elkarrizketa, elkarlana eta senitartea bultzatzeko”. (Frantzisko, 2016ko Domund egunerako mezua).

Senitartea Jainkoaren errukitik sortzen da. Jainkoaren maitasuna egiaz gozatu duena, ez da bere baitan isten, ez da salbatu duenaz ahazten eta ez du bere hurkoa itotzen (ik. Mt 21, 28). Baizik eta, ezagutzen du Kristo, besteentzat eta besteekin bizi da, Jainkoak berarekin egiten duena bera eginez (Lk 15, 36-37). Errukia bizitzean, bizi dugun Ebanjelioa iragartzen dugu. Honela, Ebanjelioa iragartzea erruki-egintzak bizitzea da: gaixoak bisitatzen dituen, gose-egarri denari jaten eta edaten ematen diona, erromesa etxean hartzen duena, biluzik dagoena janzten duena, presoak ikustera joaten dena, edota hildakoek lur ematen diona, misiolari den Eliza bera da. Eta gauza bera esan daiteke espirituzko erruki-egintzei dagokienaz.

Kristau izatea, norbere baitatik atera eta besteei eskaintzeko bere tokian jartzea da; norbere baitatik ateratze hori, bere etxetik, kulturatik eta edonolako ziurtasunetatik ateratze hori era beteenean misiolariak bizi dute. Domund egun honean Jainkoari otoitz egiten diogu haien alde. Eskerrak ematen dizkiogu haien eskaintza gogoberotzen duen eskuzabaltasunagatik eta zaindu ditzala eskatzen diogu, beraiek ere, Jainkoaren izenean zaindu ditzaten behartsuenak.

Beste hau ere eskatu nahi diogu Jainkoari: gure artean misiolari izateko deia sumatzen dutenek ez bezate Haren deia isilarazi denok ezagutzen ditugun bertako beharrekin. Handiak dira oso gure elizbarrutietako beharrak, baina Eliza katolikoa da eta mundu osora zabaltzen garen neurrian jabetuko gara Jainkoak bakoitzari digun maitasunaren zabal eta sakonaz, guztioi digun maitasuna baita. Hala dio Aita Santuak: “ez dezagun utzi gure kezkek gure bihotza kikildu dezaten, baizik eta zabal dezagun gizadi osoa bere baitan har dezan” (Frantzisko, 2016ko Domund egunerako mezua).

2016ko Gazteen Munduko Jardunaldia bukatzean idazten ditut lerro hauek, San Ignazio egunez. Krakoviako *Campus Misericordiae* delakoan ospatutako Gaubeilan honela esan zigun Frantzisko Aita Santuak: “Badira gertaerak urrutikoak gerta diezazkigukenak, nolabait esateko ukitzen ez ditugulako. Badira errealitateak ulertzen ez ditugunak, pantaila baten bidez bakarrik ikusten ditugulako (mugikor nahiz ordenagailuan). Baina bizitzarekin harremanean jartzean, pantailetatik haratagoko bizitza zehatzekin, orduan zerbait garrantzitsua gertatzen da, murgiltzeko gogo sortzen da gugan”. Egigun horixe: murgil gaitezen, bataiatuak garenez, parroki elkarte moduan, erlijioso-erlijiosa elkarte bezala, apaiz bizitzan egin dezagun otoitz eta lan egin dezagun misiolariekin eta, Jainkoak hala nahi badu, misiolari bezala. Honela ospatuko dugu Domund igandea, bihotza eta besoak mundu osoarentzat zabaldurik, maitasuna “egintzetan gehiago adieraziz hitzetan baino” (Loiolako San Ignazio). Jainkoa eman zaigun bezala geure buruak emanez, Bera errukitsu izanez gu ere errukitsu izanez, Beraren irudira sortu gintuen eta.

† Jose Ignazio Munilla Agirre
Donostiako Gotzaina